

# **BIODIBERTSITATEA FUNDAZIOAK LURREKO, ITSASOKO ETA ITSASERTZEKO BIODIBERTSITATEAREN JARDUERAK GAUZATZEKO LAGUNTZEN 2015eko DEIALDIA ARGITARATU DU**

**Interneteko helbidea:** <http://fundacion-biodiversidad.es/convocatorias/convocatorias-de-ayudas/convocatoria-de-ayudas-2015>

## **Deialdiaren helburua:**

Lehiaketa bidez, lurreko, itsasoko eta itsasertzeko biodibertsitatearekin lotutako jarduerak gauzatzeko laguntzak ematea. Aipatu laguntzen xede izango dira estatutuetan aurreikusitako Biodibertsitatea Fundazioaren helburuekin lotura zuzena duten jarduerak, konstituzioaren bidez ezarritako eskumen esparrura egokitzen direnak eta ezarritako irizpideen arabera laguntza jasotzeko egokienak direnak.

## **Onuradunak:**

- a) Estatuaren esparruko irabazi asmorik gabeko erakunde eta organizazioak, edo, bere ezaugarri bereziak direla eta, Autonomia Erkidegoaz gaindiko esparru batean edo itsasoan gauzatu behar diren proiektu, programa edo sareetan parte hartzen dutenak. Egoitza Espainian izan behar dute eta legez eraruta eta dagokien erregistroan inskribatuta egon behar dute.
- b) Ikerketa erakunde publikoak, unibertsitateak, zuzenbide publikoko korporazio profesionalak eta helburutzat merkataritzaren, industriaren, zerbitzuen eta nabigazioaren interes orokorrak ordezkatu, sustatu eta defendatzea dutenak, bai eta adierazitako jarduerak gauzaten dituzten enpresei zerbitzuak eskaintzea xede dutenak ere.

## **Jarduketa ildoak:**

Laguntzaren xede izango dira honako jarduketa ildo eta programetan barne hartzen diren proiektu eta jarduerak:

- Lurreko biodibertsitatea
  - BT1. Lurreko biodibertsitateari eta ekosistemetako zerbitzuei buruzko alderdi sozial, soziologiko, ekonomiko eta juridikoetako berrikuntzari eta ezagutzari laguntzea.
  - BT2. Hegaztiei eta Habitatiei buruzko Europako Zuzentarauen aplikazioa eta abelazkuntzaren, nekazaritzaren, arrantzaren, ehizaren, turismoaren, baso erabileren eta beste jarduera batzuen kudeaketa iraunkorra sustatzea Natura 2000 Sarean.
  - BT3. Lotura ekologikoa eta ekologia berreskuratzea. Paisaiaren kontserbazioa. Boluntariora ibaietan.
  - BT4. Kontserbazio jarduerak galtzeko arriskuan dauden espezieekin.
  - BT5. Espezie arrotz inbaditzaileen prebentzioa eta kontrola, eta pozoien aurkako borroka.
  - BT6. Bertako barietateen eta arrazen kontserbazioa.
  - BT7. Biodibertsitatearen kontserbaziorako erreminta berriak bultzatzea (lurralde zaintza, habitat bankuak, eta abar).
  - BT8. Jarduketak natura gune babestuetan (parke nazionalak, Biosferaren erreserbak, hezeguneak, RAMSAR, eta abar).
- Itsasoko eta itsasertzeko biodibertsitatea
  - BM1. Itsasoko eta itsasertzeko biodibertsitateari buruzko alderdi sozial, soziologiko, ekonomiko eta juridikoetako berrikuntzari eta ezagutzari laguntzea. Itsasoko Natura 2000 Sareko espezieen eta habitaten inbentarioak eguneratzea.
  - BM2. Lehorreko eta itsasoko itsasertzaren kudeaketa integratua.
  - BM3. Hondartza eta kostaldeetako baliabide naturalen balioa nabarmentzea.

## **Eskaerak aurkezteko epea:**

Eskaerak aurkezteko epea 2016ko uztailaren 15ean amaituko da (egun hori barne).

### Laguntzen ezaugarriak

Gauzatzeko epea:

**Proiektua gauzatzeko epea gehienez urtebetekoa izango da. Epe handiagoa hartuko da kontuan entitate eskatzaileak kausa justifikatuz gero.**

Hornidura ekonomikoa:

**Eman daitekeen zenbatekoa 60.000 eurokoa izango da gehienez.**

Proiektua batera finantzatzea **(OSO GARRANTZITSUA)**

**Administrazio Publikoen, haiei lotutako erakundeen edo haien mendeko erakundeen kasuan, Estatuko sektore publikoko fundazioen kasuan eta autonomia erkidegoetako dagokien erakundeen eta tokiko entitateen kasuan, proiektuen baterako finantziazioak ezin izango du % 50 gainditu. (Datu hau garrantzitsua da aurrekontua egiterakoan. Ildo honetan, Biodibertsitatea Fundazioari aurkeztutako proiektua batera finantzatzeko gainerako iturrien berri emango zaio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari).**

### Prozedura

Deialdi honek bi fase ditu: "eskaera" fasea eta "aurretiko hautaketa" fasea.

#### 1. Eskaera fasea

**Eskatzaileek "on line" formulario bat bete beharko dute eskatutako datu guztiekin, honako esteka honetan:**

<https://aplicaciones.fundanet.es/Biodiversidad/convocatorias/contenido/Midentificacion.asp>

**Eskatutako dokumentazioa (Fundazioak emandako formatu ofizialen arabera):**

- Eskaera formularioa (entitatea eta proiektuaren datuak)
- Esparru logikoa
- Zehaztutako aurrekontua
- Aurreikusitako giza baliabideak
- Proiektuaren kronograma
- Lege ordezkariaren adostasuna, BFri aurkeztuko zaion proposamenari dagokionez (PDFa erantsi beharko da webgunean)
- Bazkideekiko lankidetzaren hitzarmena (halakorik balego)

**Hala badagokio, entitateak proiekturako laguntza gutunak erantsi ahal izango ditu eskaeraren dokumentazio osagarri gisa.**

**Dokumentu hauek erantsi ondoren, webgunean eskaera amaitu beharko da, eta entregatutako eskaeraren frogagiria inprimatu ahal izango da.**

**GARRANTZITSUA: Ikerketaren Arloko Errektoreordetzara bidali beharko da (helbide elektronikoa: [igz.deialdiak@ehu.eus](mailto:igz.deialdiak@ehu.eus)) eskaeraren eta proiektuaren memoriaren zirriborro bana, ekainaren 15era arteko epean (egun hori barne).**

**Deialdian ezarritakoaren arabera entitate eskatzaile bakoitzak proposamen bat bakarrik aurkeztu ahal izango duenez, data horretara bitartean dokumentazio osoarekin aurkeztu diren eskaerak aztertuko ditu Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak, deialdian zehaztutako interes irizpideen arabera, eskaeren lehentasun ordena finkatzeko, UPV/EHU gisa berrespen ofiziala emate aldera.**

#### 2. Aurretiko hautaketa fasea:

**Ebaluazio Batzordeak jasotako eskaerak ebaluatu eta ebazpen bat igorriko du aurretiaz hautatutako proposamenekin. Proposamen hauei dagokienez, honako dokumentazio hau eskatuko da:**

1. Proiektuaren memoria.
2. Laguntza onartzearen gutuna.
3. Aurrekontu xehatua II.
4. Kronograma xehatua II.
5. Giza baliabideak II.
6. Dagozkion administrazio baimenak.
7. Eraketa dokumentua, estatutuak edo sortze akta (**Unibertsitatearen Estatutuak**)\*.
8. Zer ordezkaritza egiten den egiaztatzen duen dokumentua edo ahalordea (**Ikerketaren arloko errektoreordearen izendapena**)\*.
9. **Zerga betebeharrak**\* betetzen direla egiaztatzen duen administrazio **ziurtagiri** positiboa\*.
10. **Gizarte Segurantzarekiko**\* betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duen administrazio **ziurtagiria**.

**\*UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ematen dituen dokumentuak.**

**Informazio gehiago:**

Hauek dira eskaera betetzeko beharrezkoak diren UPV/EHUren datuak:

- **IFK:** Q-48/18001-B
- **Tel.:** 94 601 80 08
- **Helbide soziala:** Sarriena auzoa, zk.g.
- **Posta kodea:** 48940
- **Herria:** Leioa
- **Kargua:** Ikerketaren arloko errektoreordea

***UPV/EHUrekin harremanetan jartzeko datuak:***

Tel.: 94 601 80 08

Helbide elektronikoa: [igz.deialdiak@ehu.eus](mailto:igz.deialdiak@ehu.eus)

***Biodibertsitatea Fundazioarekin harremanetan jartzeko datuak:***

Azterlanak eta Proiektuak Saila

Tel.: 91 121 09 20

Faxa: 91 121 09 39

Helbide elektronikoa: [proyectos@fundacion-biodiversidad.es](mailto:proyectos@fundacion-biodiversidad.es)